

euskaraz bizi 1 vivre en basque

Méthode multimédia de promotion de la langue basque

Commanditée et financée par

- le Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques

Produite par

- l'association IKAS

Réalisée par

- l'Office Régional d'Éducation Permanente

Sous la direction

- d'Erramun Bachoc

Participation

- municipalité de Hasparren
 - ikastola de Hasparren
- Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea
 - Kimalalaxo
- enseignants et élèves de basque

Illustrations

- Jean Bernard Iribarne

Salgaiak

en vente

- euskaraz bizi 1

1. ikasgaia

- euskaraz bizi 2

2. ikasgaia

- euskaraz bizi 3

3. ikasgaia

- euskaraz bizi 4

4. ikasgaia

- euskaraz bizi 5

5. ikasgaia

- euskaraz bizi 6

6. ikasgaia

IKAS

Lota jauregia
64480 Uztaritze

Tel. 33 (0)5 59 93 24 80
Fax : 33 (0)5 59 70 32 88

e-posta : info@ikas.org
webgunea : <http://ikas.org>

Dépôt légal : octobre 2001

Aitzin solas

Euskaraz bizi dena, hora euskalduna da.
Hizkuntza herri nortasunaren oinarria da.
“ Euskararik gabe ez da Euskal Herririk ”.

Hain luzaz besteen peko izanik, herritar anitzek eta berdin gure lagunek eta gure haurrek beren herri hizkuntza galdu dute. Euskara zabalduz ikastetxeetan, gau-eskoletan, irratiatik, telebistatik, urrats handia eginen dugu askatasunari buruz.

“ Ez dakitenek euskara ikas, dakitenek irakas ! ”. Liburu honen helburua da ikasleen eta irakasleen laguntzea, haste hastetik euskara mintzatzen. Lehen ikastaldian agurrrak eta ezagutzak eginen ditugu, bigarrenean nahiak adieraziko, hirugarrenean ikas gelako harremanak euskaraz eginen...Liburu honetan lehen 10 ikasgaiak aurkituko dira, hots, urraspide luze baten lehen zatia. Ikasbide honi jarraikiz, ikasleak ehun astez euskara ikas dezake, astean ikasgai bat landuz, lau orenez.

Liburu hau eginkizun zabal batetako lehen harria da. Departamenduko Konseilu Nagusiaren eta Kultur Ministeritzaren laguntzarekin 60 ikasgai antolatu ditugu. Denbora berean antzerkilariek ikasgaiak bideotan sartu dituzte. Gero OREP-eko teknikalariek bideo emankizunak prestatuko dituzte.

Lankidetza zabal honetan parte hartzen dute erakunde eta batasun anitzek. Hemen ditugu, Euskal Antzerki Taldeen Biltzarrea, Habe, Haize Garbia, Ibilkariak, Kimalaxo, Mende Berri, OREP, gure asmoa da tresna berri batzuren egitea, euskalduntze mugimenduaren akulatzeko ikastetxeetan, euskaltegietan, familietan, lagunartean, kultur batzordeetan, kiroletan.

Eta orain zenbait xehetasun frantseset, erdaldunentzat egina baita liburu hau. Euskaraz bizi ditezen lehenbailehen

Euskaraz bizi, vivre en basque.

La langue exprime l'identité d'un peuple.

Être basque c'est parler, sentir, agir en basque.

Objectifs

Notre méthode s'inspire de "l'approche communicative" préconisée par le Conseil de l'Europe. En référence à la thèse du "niveau seuil", le programme se propose de développer, par vagues successives, dix fonctions linguistiques essentielles :

Saluer et se présenter (nortasuna) - "Agur, agur..."

Faire connaître ses désirs (nahaiak) - "Zer nahi duzu ?"

Agir et réagir (ekintzak) - "ikastaldia euskaraz"

Se situer dans l'espace (lekuak) - "Non bizi zara ?"

Défendre ses opinions (gogoetak) - "Nondik nora"

Décrire les êtres et leur environnement (inguruak) - "Gure familia"

Offrir ses servives ou demander de l'aide (eskabideak) - "Zer hartzen duzu ?"

Raconter les événements (gertakariak) - "Zer berri ?"

Dire l'heure, la date, l'emploi du temps (denbora) - "Zer tenore da"

Exprimer les sentiments et les émotions (hunkipenak) - "Zorionak"

Le manuel

Savoir le basque consiste à fonctionner avec aisance dans les situations courantes, ce qui suppose la connaissance du vocabulaire, les automatismes langagiers, mais aussi l'intonation et la gestualité. L'apprentissage se déroule selon un rythme en trois temps :

- 1- Un événement de communication (gertakaria) est présenté de manière vivante : dialogue, vidéo, sketch. L'élève voit, écoute et comprend ce qui se passe à la maison (etxean), à l'école (eskolan), entre camarades (lagunartean), en société (gizartean).
- 2- Des exercices structuraux (errepika) fixent les automatismes de base dans les domaines de la grammaire, du vocabulaire, de l'intonation.
- 3- La conversation (eleketa), dirigée à l'aide de canevas (solasbide), achemine le nouveau locuteur vers l'expression spontanée et même à l'improvisation ludique et poétique.

Une méthode multimédia

Le présent livre offre les 10 premières unités d'apprentissage recouvrant une "vague" d'un programme qui en comprend 5 autres. Nous l'avons édité pour être expérimenté avec les débutants dans les classes de conversation, les cours du soir et les groupes naturels. Voici donc le premier pas d'une méthode de basque qui utilisera différents moyens de communication : le livre, la vidéo, la cassette, la radio, la télévision. C'est dire l'intérêt que le groupe de travail porte aux critiques des utilisateurs, enseignants ou étudiants, pour appliquer à la langue basque un enseignement fonctionnel qui a fait ses preuves en anglais, en français, en allemand.

Ce programme est financé par le Conseil Général et le ministère de la Culture : producteur délégué : A. Luberriaga, conseiller général, rédacteur : E. Bachoc, professeur de linguistique appliquée.

Le texte de base s'élabore avec la participation d'institutions et d'associations œuvrant pour la culture basque : itinérants, Habe, Haize garbia, Mende Berri. La scénarisation et l'enregistrement sont confiés à l'Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra, à Kimalaxo et à l'OREP.

Cette vaste mobilisation est un signe prometteur pour la pérennité et le développement de l'euskara dans les milieux où la culture basque survit contre vents et marées, à savoir les familles, les élèves des écoles et collèges, les groupes en voie de rebasquisation. Nous travaillons ainsi au sauvetage d'une des cultures minorisées par la politique unilingue. Et ces moyens qui jusqu'à présent ont desservi la langue basque, écoles, radio, télévision, seront utilisés pour redonner à l'Euskal Herri son vrai visage. Chaque peuple a un droit strict à son propre langage.

1. Agur, agur !

1.1 Eskolan - **Egun on, andereño.**


Ikasleak andereñoa agurtzen du.

- | | |
|----------|--------------------------------|
| Maite | - Egun on andereño. |
| Andereño | - Bai zuri ere. Nola zara ? |
| Maite | - Ongi eta zu ? |
| Andereño | - Ni ere bai, milesker. |
| Maite | - Gero arte. |
| Andereño | - Bai agur. |

Irakasleak gertakari hau irakurtzen du, edo zintaz entzunazarazten, edo bideoz erakusten. Gero ikasleek egiten dute.

1.2 Errepika - **Agurrak.**

- Egun on (Maddalen)
- Arratsalde on (Antton)
- Gau on (Añamari)
- Gero arte
- Bihar arte
- Ikus arte
- Agur, agur. Adio



1.3 Eleketa - **Ikus arte.**

Ikasleek agurrak eginen dituzte eskolan, etxeian, saltegian, lagunartean, ereduari jarraikiz. Irakasleak ematen dugu solasbidea. Adibidez : "Zu irakasle, zu ikasle. Arratsaldea da."

- | | |
|-----------|-------------------------|
| Irakasle | - Arratsalde on, Beñat. |
| Ikasle | - Bai zuri ere, Jauna. |
| Irakasle | - Nola zara ? |
| Ikaslea | - Ongi eta zu ? |
| Irakasle | - Ni ere bai, milesker. |
| Ikaslea | - Ikus arte. |
| Irakaslea | - Bai, adio. |

1.4 Lagunartean - **Nor da hori ?**

Mailuxek Koldoari erakusten dio beste lagun bat, Mixel.

- Mailux - Arratsalde on, Koldo.
Koldo - Bai zuri ere, Mailux.
Nor da hori ?
Mailux - Hori Mixel Bidegain da.
Koldo - Mixel euskalduna da ?
Mailux - Bai, euskalduna da.
Denak euskaldunak gara.
Mixel - Arratsalde on.
Koldo zara zu ?
Koldo - Bai, ongi etorri, adiskide.



1.5 Errepika - **Nor zara zu ?**

| Nor | (ez) | izena | (bai) |
|---------|-------------|-------------|--------|
| Ni | | Aña | (naiz) |
| Zu | (ez zara) | Martta | |
| Gilen | | euskalduna | (da) |
| Gu | | ikasleak | (gara) |
| Zuek | (ez zarete) | erdaldunak | |
| Lagunak | | euskaldunak | (dira) |

1.6 Eleketa - **Izenak**

Ezagutzak egin lagunartean, izenak euskaldunduz.

- Mutikoa - (Egun on), adiskide.
Neskatoa - Bai zuri ere.
Mutikoa - Nor zara zu ?
Neskatoa - Ni (Maite Etxemendi) naiz.
Eta zu nor zara ?
Mutikoa - Ni (Beñat) Indarte naiz.
Euskalduna naiz.eta zu ?
Neskatoa - Ni ere bai. Gora euskaldunak !

1.7 Etxean - Telefonaz

Battittak deitzen du Maiderren aita :

"Tirrint, tirrint".

- Maider - Bai
Battitta - Arratsalde on.
Maider - Bai zuri ere.
Maider - Ioana zara zu ?
Maider - Ez, ez naiz Ioana.
Maider - Maider naiz. eta zu ?
Battitta - Ni Battitta naiz.
Aizu ! Aita hor da ?
Maider - Bai, aita hemen da.
Battitta - Esker mila.gero arte.
Maider - Bai, agur.



1.8 Errepika - Neska hau nor da ?

Neska hori, neska hura. Hau, hori, hura.

| NOR | NOR | BAI | NOR | EZ | ZER |
|------------|------------|-----|------------|-------|-----------|
| Neska | Elixa | da | Neska hau | ez da | alaia |
| Mutil hori | euskalduna | da | Mutil hori | ez da | pilotaria |
| Gizon hura | euskalduna | da | Gizon hura | ez da | erdalduna |

1.9 Eleketa - Dei bat

Telefonaz elkar izenda.

- Neska- Tirrint! Tirrint !
Mutila - Bai.
Neska- Nor zara zu ?
Mutila - Ni (Gilen) naiz.
Neska- Agur (Gilen).
Mutila - Eta nor zara zu ?
Neska- Agur, agur.

- Neska - Tirrint! Tirrint !
Mutila - Bai.
Neska - (Eñaut) zara zu ?
Mutila - Ez.
Neska - Eñaut hor da ?
Mutila - Ez ez da hemen.
Neska - Gero arte.
Mutila - Bai, ikus arte.

Kantua - **Agur jauna**

Agur jaunak, jaunak agur, agur t'erdi,
 Jaun Goikoak eginak gira zuek eta, bai gu ere.
 Agur jaunak, jaunak agur, agur t'erdi. (Hemen gira, agur Jaunak)
 Gau eta egun, agur, agur. Goiz eta arrats, agur.
 Eguzki jaun, agur, agur. Ilargi on, agur, egur.

Mintzamoldea

| | | | |
|--------|-----------------------------|-------|------------------------------|
| • E : | é français : eta (et) | • G : | toujours dur : egia (vrai) |
| • U : | ou français : agur (salut) | • X : | ch français : xori (oiseau) |
| • J : | d mouillé : jaun (monsieur) | • Z : | s français : zer (quoi) |
| • TT : | t mouillé : Battitta | • S : | entre s et ch français : sei |
| • R : | doux entre voyelles : ere | • N : | toujours dur : egin (faire) |
| • RR : | r roulé espagnol : erre | • Ñ : | gn français : andereño |

Hiztegia 1

-1.1-

| | |
|------------|---------------|
| agur | : salut |
| egun on | : bonjour |
| andere | : dame |
| aundereño | : demoiselle |
| on | : bon |
| ongi | : bien |
| bai | : oui |
| ez | : non |
| nor | : qui |
| nola | : comment |
| zu | : vous |
| zuri | : à vous |
| gero | : après |
| bihar | : demain |
| arte | : jusqu'à |
| mila esker | : mille merci |

| | |
|------------|--------------|
| arrats | : soir |
| arratsalde | : après-midi |
| ikus | : voir |
| ikus arte | : au revoir |

-1.3-

| | |
|--------------|----------|
| ikasle | : élève |
| irakasle | : maître |
| hau | : ceci |
| hori, hura | : cela |
| euskaldun | : basque |
| dena | : tout |
| denak | : tous |
| etor, etorri | : venir |
| adiskide | : ami |

-1.4-

| | |
|------|---------------|
| ni | : je |
| hi | : tu |
| gu | : nous |
| zu | : vous (sing) |
| zuek | : vous (plur) |

-1.6-

| | |
|------------|--------------|
| ni ere bai | : moi aussi |
| gora | : haut, vive |

-1.7-

| | |
|----------|-------------|
| telefona | : téléphone |
| aizu! | : écoutez! |
| etor | : venir |
| zato | : venez |

-1.8-

| | |
|----------|--------------------|
| zer | : quoi |
| neska | : fille |
| mutil | : garçon |
| erdaldun | : non-basque |
| alai | : joyeux |
| pilota | : pelote |
| pilotari | : joueur de pelote |

-kantua-

| | |
|--------|------------|
| eguzki | : soleil |
| ilargi | : lune |
| jaun | : monsieur |
| Jainko | : Dieu |

2. Zer nahi duzu ?

2.1 Etxean - Askaria

Haurren askaria (gosaria) eskolara joan aintzin.

- | | |
|--------|---|
| Ama | - Zatozte askaltzera (gosaltzera). |
| Maider | - Ni gose naiz. |
| Ama | - Zer nahi duzu ? |
| Maider | - Nik kafesnea nahi dut. |
| Peio | - Nik xokoletesnea maite dut. |
| Ama | - Eta gero ? |
| Maider | - Ogia eta gurina (burra). |
| Peio | - Gurina ez dut maite. |
| Ama | - Ez zara gose, Peio ? |
| Peio | - Ez, ez naiz gose. Egarri naiz. Edan behar dut. |



2.2 Errepika - Zer nahi duzu ?

| NOR | ZER | BAI | NORK | ZER | BAI |
|-------|---------|--------|---------|----------|---------------|
| Ni | gose | naiz | Nik | ogia | nahi dut |
| Hi | gose | haiz | Hik | haragia | maite duk/n |
| Zu | egarri | zara | Zuk | ura | behar duzu |
| Patxi | egarri | da | Patxik | arnoa | maite du |
| NOR | EZ | ZER | NORK | EZ | ZER |
| Ni | ez naiz | gose | Nik | ez dut | ogia nahi |
| Hi | ez haiz | gose | Hik | ez duk/n | haragia maite |
| Zu | ez zara | egarri | Zuk | ez duzu | ura behar |
| Ganix | ez da | egarri | Ganixek | ez du | arnoa maite |

2.3 Eleketa - Gose eta egarri

Aitak askaria prestatu du. Ioana gose da eta Xabier egarri.

- | | |
|--------|------------------------------------|
| Aita | - Zatozte gosaltzera. |
| Ioana | - Ni gose naiz. |
| Aita | - Zer (nahi) duzu ? |
| Ioana | - Nik (esnea) maite dut. |
| Aita | - Eta zuk, Xabier, zer nahi duzu ? |
| Xabier | - Ni ez naiz gose. Egarri naiz... |

2.4 Eskolan - Baskaria kantinan

- Andereño - Eguerdi da. Gose zarete ?
 Maite - Bai, denak gose gara.
 Andereño - Jatekoak hauek dira : eltzekaria eta entsalada ; xingar eta arraultze ; tomate salsa ; sagarra.
- Maite - Hori ! Guk xingarra maite dugu.
 Beñat - Nik tomatea ez dut maite.
 Andereño - Beñat, ez zara gose ?
 Beñat - Egarri naiz, Andereño, ura behar dut.
- Maite - Hori zu ura.
 Beñat - Esker mila.



2.5 Errepika - Zer nahi duzue ?

| NOR | ZER | BAI | NORK | ZER | BAI |
|---------|-----------|--------|---------|----------|----------------|
| Gu | gose | gara | Guk | sagarra | nahi dugu |
| Zuek | gose | zarete | Zuek | xingarra | maite duzue |
| Neskak | egarri | dira | neskek | esnea | behar dute |
| NOR | EZ | ZER | NORK | ZER | EZ |
| Gu | ez gara | gose | Guk | sagarra | ez dugu nahi |
| Zuek | ez zarete | egarri | Zuek | ura | ez duzue behar |
| Mutilak | ez dira | egarri | Mutilek | arnoa | ez dute maite |

2.6 Eleketa - Afaria

Afaria jatetxeen ; Koldok eta Itziarrek afaria eskatzen diote zerbitzariari : agurrak, jatekoak, eskerrak.

- Zerbitzaria - Gau on, jaun-andereak.
 Itziar - Bai zuri ere.
 Zerbitzaria - Zer nahi duzue jan ?
 Itziar - Nik, entsalada maite dut. Eta gero...

2.7 Gizartean - Bulegoan

Bulegariak dozierra antolatzen du.

- | | |
|-----------|------------------------------------|
| Bulegaria | - Zure izena behar dut. |
| Mixel | - Mixel Bidegain. |
| Bulegaria | - Zure helbidea ? |
| Mixel | - 8, Xaho karrika 64100 Baiona. |
| Bulegaria | - Zure telefona zenbakia ? |
| Mixel | - 05 59 12 34 56. |
| Bulegaria | - 05 59 12 34 57. |
| Mixel | - Ez, 56. |
| Bulegaria | - Mila esker. |




2.8 Errepika - Bat, bi, hiru...

| | | | | | |
|----------|--------|----------|----------|-----------|--------------|
| 1 | : bat | 5 | : bost | 9 | : bederatzi |
| 2 | : bi | 6 | : sei | 10 | : hamar |
| 3 | : hiru | 7 | : zazpi | 0 | : zero |
| 4 | : lau | 8 | : zortzi | 0 | : bat ere ez |

Gehiketa eta kenketa xumeak :

- | | |
|---------------|----------------------------------|
| $2 + 4 = 6$ | bi gehi lau berdin sei. |
| $10 + 5 = 15$ | hamar gehi bost berdin hamabost. |
| $9 - 1 = 8$ | bederatzi ken bat berdin zortzi. |
| $7 - 3 = 4$ | zazpi ken hiru berdin lau. |



2.9 Eleketa - Telefona zenbakiak

a) Telefona zenbakia gaizki egina da : entzuleak zuzentzen du.

1. ikaslea - Isteberen zenbakia hau da :
05 59 29 78 34. Tirrint.
2. ikaslea - Bai, nor da ?
1. ikaslea - Egun on. Istebe hor da ?
2. ikaslea - Ez, hemen 05 59 29 78 35-a da.
1. ikaslea - Barkatu, makur naiz.

b) Ariketari jarrai zenbaki hauekin :

- | | | |
|----------------|-----|------------------|
| 05 59 37 45 68 | ala | 05 59 37 45 69 ? |
| 05 59 20 74 63 | ala | 05 59 20 74 64 ? |
| 05 59 54 19 02 | ala | 05 59 54 19 03 ? |
| 05 59 29 54 36 | ala | 05 59 29 54 37 ? |



Jokoa - **Xirrixti mirrixti**

Plok! Xirrixti, mirrixti, gerrenian, plat,
olio sopa, kikili, salda, hurrup,
edan, edo, kili, mili, klik !

Hiztegia 2

-2.1-

| | |
|-----------|--------------------|
| ama | : mère |
| aita | : père |
| askari | : petit déjeuner |
| askaldu | : déjeuner (matin) |
| gose | : faim |
| egarri | : soif |
| kafe | : café |
| esne | : lait |
| nahi dut | : je veux |
| maite dut | : j'aime |
| ogi | : pain |
| gasna | : fromage |
| behar dut | : j'ai besoin |
| gurina | : beurre |
| edan | : boire |

-2.2- -2.3-

| | |
|--------|----------|
| ur | : eau |
| arno | : vin |
| haragi | : viande |

-2.4-

| | |
|------------|--------------|
| bazkari | : déjeuner |
| afari | : souper |
| afaldu | : souper |
| kantina | : cantine |
| eguerdi | : midi |
| den | : tout |
| denak | : tous |
| jan, jaten | : manger |
| jateko | : nourriture |
| eltzekaria | : potage |
| entsalada | : salade |
| xingar | : jambon |
| arraultze | : oeuf |
| tomate | : tomate |

| | |
|--------|---------|
| saltsa | : sauce |
| sagar | : pomme |

-2.5- -2.7-

| | |
|------------|-----------------|
| neska | : fille |
| mutil | : garçon |
| afari | : repas du soir |
| zerbitzari | : serveur |
| esker | : remerciement |
| bulego | : bureau |
| bulegari | : fonctionnaire |
| izen | : nom |
| helbide | : adresse |
| karrika | : rue |

-2.8-

| | |
|----------|----------------|
| zenbaki | : nombre |
| gehi | : plus |
| gehiketa | : addition |
| ken | : moins |
| kenketa | : soustraction |
| berdin | : égal, pareil |

-2.9-

| | |
|---------|------------|
| gaitz | : maladie |
| gaizki | : mal |
| barkatu | : pardon |
| makur | : erroné |
| ariketa | : exercice |

-Jokoa- -Kantua-

| | |
|-------------|-----------|
| gerren | : broche |
| olio | : huile |
| zopa, salda | : soupe |
| hurrupa | : gorgée |
| edo | : ou bien |
| aho | : bouche |
| baso | : verre |
| belarri | : oreille |
| soinu | : son |

3. Ikastaldia euskaraz

Ikastaldiak hiru zati ditu : gertakaria, errepika eta eleketa.

3.1 Eskolan - **Gertakaria ikus**

Bat : gertakaria entzun eta ikus.

Bi : gertakaria uler (konpreni).

Hiru : antzerkia egin.

- a) Irakaslea - Gertakaria entzun ezazue, zintan.

Aitak bere haurrak iratzartzen ditu.

Jaiki

| | |
|--------|--|
| Aita | - Jaiki zaitezte, haurrak. |
| Maider | - Goiz da, aita. |
| Aita | - Ez, beranta da. |
| Ioana | - Lo egiten ari naiz. |
| Maider | - Ez, aments egiten ari zara. |
| Aita | - Zatozte, askaria (gosaria) prest da. |
| Maider | - Eta mutikoak zer ari dira ? |
| Peio | - Gu ikuzten ari gara. |
| Aita | - Zuek denak kalakan ari zarete. Zareten kalakariak ! |



- b) Irakaslea - Orain gertakaria uler ezazue.

Irakaslea - Guk entzun dugu,
 baina ez dugu ulertu.

Irakaslea - Hiztegia irakur ezazue.

Irakaslea - Gertakaria berriz irakurtzen dut.
Irakaslea - Ederki ! Orain dena ulertzen dugu.

Hiztegia

| | |
|-----------|--------------------|
| ari | : être en train de |
| iratzarri | : réveiller |
| jaiki | : debout |
| goiz | : tôt |
| berant | : tard |
| lo | : sommeil |

| | |
|----------------|-------------|
| aments | : rêve |
| dena | : tout |
| askari, gosari | : déjeuner |
| ikuzi | : se laver |
| kalaka | : bavardage |
| kalakari | : bavard |

- d) Irakaslea - Orain antzerkia egin ezazue.
 Zu (mutiko); “aita” zara.
 Zuek (bi neska), “Maider” eta “Ioana” zarete.
- Mutiko - Eta ni, “Peio” naiz.
- Irakaslea - Bai, nahi baduzu.
- Ikaslea - Gertakaria irakurri behar dugu ?
- Irakaslea - Gertakaria gogoz ikas ezazue.
- Ikaslea - Guk ere ari nahi dugu.
- Irakaslea - Ederki ! Orain multzo bat ari da.
 Gero denak multzo ttipietan.

3.2 Errepika - Zertan ari gara ?

- Irakaslea - Ikasgaia ikus ezazue arbelan.
 Nik galda eta zuek erantzun ezazue.

| NOR | (EZ) | ZERTAN | (BAI) |
|---------|-------------|------------|------------|
| Ni | | irakurtzen | ari (naiz) |
| Hi | | ikuzten | ari (haiz) |
| Zu | (ez zara) | idazten | ari |
| Neska | | ikasten | ari (da) |
| Gu | | pilotan | ari (gara) |
| Zuek | (ez zarete) | antzerkian | ari |
| Mutilak | | kalakan | ari (dira) |

- Irakaslea - Zertan ari naiz ? (Ni, ikasten, bai).
 Zuri Maite.
- Maite - Ni ikasten ari naiz.
- Irakaslea - Ongi. Zertan ari gara ? (Gu, antzerkia, bai).
 - Zuri Beñat.
- Beñat - Gu antzerkian ari gara.
- Irakaslea - Ederki ! Zertan ari dira (Mutikoak, pilota, ez)
 Zuri Oihana.
- Oihana - Mutikoak ez dira pilotan ari.
- Irakaslea - Biziki ongi !
 Orain errepika ezazue multzo ttipian.
 Bat irakasle, besteak ikasle.

3.3 Eleketa - Berantan da

- Irakaslea - Orain eleketa ari gara
 - Mintzagaia hau da :
 "goizean, amak bere haurrak iratzartzen ditu.
 Semeak lo egin nahi. Alaba ikusten ari".
- Maite - "Eta gero, denak askaltzen ari".
 Ni, "ama" naiz.
- Irakaslea - Ongi. Eta nor da semea ?
- Beñat - Ni, semea naiz.
- Irakaslea - Nor da alaba ?
- Oihana - Ni.
- Irakaslea - Ongi. Eleketa has gaiten.

| | |
|-------|--|
| Ama | - Haurrak, jaiki, beranta da. |
| Semea | - Ez ama, lo egiten ari naiz. |
| Alaba | - Ama, ni ikuzten ari naiz. |
| Ama | - Zer nahi duzu, (Beñat) ? |
| Semea | - Nik, xokoleta nahi dut. |
| Ama | - Eta zuk, (Maider) ? |
| Alaba | - Nik, kafesnea nahi dut. |
| Ama | - Jaiki zaitezte laster, eta zatozte biak askaltzera. |



- Irakaslea - Ongi eta orain eleketa ari gara multzo ttipietan.
 Ea, nor ama eta nor seme-alabak ?
- Ikaslea - Nik aita egin nahi dut eta askarian arraultze eta xingar.
- Irakaslea - Ederki. Multzo bakoitza bere xokoan.

3.4 Kantua - Haurrak ikas ezazue

Irakaslea : kantu ederra entzun ezazue.

Haurrak ikas ezazue, euskaraz mintzatzen,
 Ongi pilotan eta, airoski dantzatzen.
 Airetun txikitun, airetun laire.

3.5 Errepika - Ulertu duzue ?

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Ulertu duzue ? - Bai, ulertu dut. - Ez, ez dut ulertu. - Liburua har ezazue Ipuina irakur ezazue - Ipuina irakurri dut. | <ul style="list-style-type: none"> - Kaierra irek ezazue. Esaldia idaz ezazue. - Esaldia idatzi dut. - Nik galde egin. Erantzun ezazu. Mintza zaitez. |
|--|---|


3.6 Zenbakiak

a) Hamar, hameka, ...

| | | | |
|----|------------|----|----------------|
| 10 | : hamar | 16 | : hamasei |
| 11 | : hamaika | 17 | : hamazazpi |
| 12 | : hamabi | 18 | : hemezortzi |
| 13 | : hamahiru | 19 | : hemeretzi |
| 14 | : hamalau | 20 | : hogei |
| 15 | : hamabost | 21 | : hogei-ta-bat |

b) Biderketa

| | |
|-------------|---------------------------------------|
| 2 x 3 = 6 | bi bider hiru berdin sei. |
| 3 x 5 = 15 | hiru bider bost berdin hamabost |
| 2 x 10 = 20 | bi bider hamar berdin hogei |
| 3 x 7 = 21 | hiru bider zazpi berdin hogoi-ta-bat. |



Hiztegia 3

-3.1-

| | |
|------------|--------------|
| ikastaldia | : cours |
| zati | : partie |
| gertakari | : évènement |
| errepika | : répétition |
| entzun | : écouter |
| ikusi | : voir |
| ulertu | : comprendre |
| konprentu | : comprendre |
| antzerki | : sketch |
| zinta | : cassette |
| egin | : faire |
| irakurri | : lire |
| multzo | : groupe |

-3.2-

| | |
|---------|----------|
| bakoitz | : chaque |
| xoko | : coin |


| | | | |
|--------------|----------------|----------|------------------|
| nor ? | : qui ? | ederki | : bien |
| zer ? | : quoi ? | | |
| zertan ? | : à quoi ? | | |
| -3.3- | | | |
| ele, mintzo | : parole | liburu | : livre |
| eleketa | : conversation | ipuin | : conte |
| mintzagai | : thème | esaldi | : phrase |
| aita | : père | idatzi | : écrie |
| ama | : mère | ireki | : ouvrir |
| seme | : fils | galde | : question |
| alaba | : fille | erantzun | : réponse |
| haur | : enfant | bider | : multiplié par |
| -3.4- | | | |
| ikasi | : apprendre | biderka | : multiplication |
| mintzatu | : parler | | |
| dantzatu | : danser | | |
| airos (ki) | : gai (ement) | | |
| eder | : beau | | |

4. Non bizi zara ?

4.1 Etxean - Non zarete

Amak bere haurrak deitzen ditu.

- | | |
|--------|--|
| Ama | - Non zarete haurrak ? |
| Maider | - Ioana eta ni logelan gara. |
| Ama | - Eta mutikoak, non dira ? |
| Peio | - Gu hemen gara, egongelan. |
| Ama | - Zatozte, bazkaria prest da. |
| Peio | - Non jan behar dugu ? Kanpoan ala sukaldean ? |
| Ioana | - Kanpoan, kanpoan ! |
| Maider | - Kanpoan denbora ederra da. |
| Ama | - Kanpoan ala barnean, zuek nahi bezala. |
| Xabier | - Aita ez da extean ? |
| Ama | - Ez haurra, aita lanean da, patata (lusagar) biltzen. |



4.2 Errepika - Non da Xabier ?

| NOR | (EZ) | NON | (BAI) |
|---------|-------------|-----------|--------|
| Xabier | | egongelan | (da) |
| Ni | (ez naiz) | ikasgelan | |
| Hi | | sukaldean | (haiz) |
| Gu | (ez gara) | lanean | |
| Zu | | hemen | (zara) |
| Zuek | (ez zarete) | hor | |
| Haurrak | | han | (dira) |

4.3 Eleketa - Non eta zertan


Anaia eta arreba eleketan gela batetik bestera.

1. ikaslea - (Maider) non zara ?
2. ikaslea - Logelan naiz.
1. ikaslea - Zer ari zara ?
2. ikaslea - (Irakurtzen) ari naiz (idazten, musean).

4.4 Eskola : Non duzu liburua ?

Ikasleak tresnen bilan.

- Maite - Liburua falta dut.
Non da liburua ?
- Beñat - Mahai gainean da.
- Maite - Ez da hau.
Euskal liburua behar dut.
- Beñat - Beraz zaku barnean da,
hor mahai pean.
- Maite - Bai, egia da.
Orain non dira arkatzak
- Beñat - Arkatz-untzia bulego aintzinean da.
- Maite - Ez, ez da han.
- Beñat - Ala aulkia gibelean, aments ?
- Maite - Horra! Hemen da !
Zuk gordea, hain segur ?
- Beñat - Bai, kukugordeka ari gara.



4.5 Errepika - Aintzin, gibel.

| ZER | (EZ) | NON | (BAI) |
|-----------|-----------|-----------------|--------|
| Liburua | | mahain gainean | (da) |
| Arkatza | (ez da) | aulki pean | |
| Kaierra | | bulego gibelean | (da) |
| Zakua | (ez da) | ate aintzinean | |
| Zuhaitzak | | etxe aintzinean | (dira) |
| Ardiak | (ez dira) | mendi gibelean | |
| Otsoak | | oihanean | (dira) |
| Behiak | (ez dira) | kanpoan | |

4.6 Eleketa - Gauzak non dira ?

Ikasleek tresnak bilatzen.

1. ikaslea - Non duzu kaierra ?
2. ikaslea - Kaierra mahai gainean dut.
1. ikaslea - Non duzu eztiloa ?
2. ikaslea - Eztiloa zakuan dut.

4.7 Lagunartean - **Garazin bizi**

Adiskide zaharrak Hazparneko merkatuan.

Erramun - Arratsalde on, Pattin.
 Non bizi zara ?
 Pattin - Orain Garazin bizi naiz. Eta zu ?
 Erramun - Ni beti Baigorri,
 Baigorriko semea naiz.
 Pattin - Eta non ari zara lanean ?
 Erramun - Arrosako lantegian. Eta zu ?
 Pattin - Nik etxaldea dut Donazaharren,
 Urrutikoborda.
 Erramun - Etxeko jaun handia zara !
 Pattin - Etxeko nagusi eta langile naiz.
 Erramun - Eta zer merkatu Hazparnen ?
 Pattin - Hazparneko merkatua beti ederra da.




4.8 Errepika - **Non eta nongo ?**

| NON | ZER | NONGO | ZER |
|-----------|----------|------------|----------|
| Hazparnen | merkatua | Harparneko | merkatua |
| Baigorrin | sortua | Baigorriko | semea |
| Arrosan | lantegia | Arrosako | lantegia |
| Etxean | nagusi | Etxeko | jauna |
| NOIZ | ZER | NOIZKO | ZER |
| Goizean | izarra | Goizeko | izarra |
| Arratsean | klasea | Arratseko | klasea |
| Gauean | partida | Gaueko | partida |

4.9 Eleketa - **Etxe izenak**

1. ikaslea - Etxeak zer du izena ?
2. ikaslea - Mendialdea.
1. ikaslea - Mendialdeko zara.
2. ikaslea - Eta zu ?
1. ikaslea - Ni Indarteko semea naiz.

Mapa - Euskal herria



Izendegia - Herri izenak

- **Lapurdi** : Angelu, Baiona, Donibane Lohizune, Hazparne, Hendaia, Miarritze, Kanbo, Sara, Senpere, Uztaritze, Ziburu.
- **Baxenabarre** : Aierra, Aldude, Baigorri, Bidarrai, Donapaleu, Donazaharre, Donibane Garazi, Ortzaize, Suhuskune.
- **Zubero** : Atarratze, Barkoxe, Domintxine, Maule, Santa Grazi.

Hiztegia 4

-4.1-

| | |
|-------------------|-------------------|
| deitu | : appeler |
| non ? | : où ? |
| noiz ? | : quand ? |
| gela | : salle |
| logela | : chambre |
| egongela | : salle de séjour |
| kanpo | : extérieur |
| barne | : intérieur |
| su | : feu |
| sukalde | : cuisine |
| denbora, eguraldi | : temps |
| bezala | : comme |
| eder | : beau |
| ederki | : bien |
| etxe | : maison |
| lan | : travail |
| patata | : pomme de terre |
| lursagar | : pomme de terre |

-4.2- -4.3-

| | |
|----------|-------------------|
| ikasgela | : salle de classe |
| hemen | : ici |
| hor | : là |
| han | : là-bas |
| gela | : salle |

-4.4-

| | |
|--------|--------------|
| tresna | : instrument |
|--------|--------------|

| | |
|-------------|--------------------|
| falta | : manque |
| mahai | : table |
| aulki | : chaise |
| gain | : dessus |
| pe | : dessous |
| aintzin | : avant |
| gibel | : arrière |
| zaku | : sac |
| ontzi | : récipient |
| arkaitz | : crayon |
| gorde | : caché |
| gorde | : cacher |
| kukugordeka | : à colin maillard |

| | |
|---------|------------|
| zuhaitz | : arbre |
| ardi | : brebis |
| behi | : vache |
| otso | : loup |
| azeri | : renard |
| oihan | : forêt |
| mendi | : montagne |
| gauza | : chose |
| eztilo | : stylo |

| | |
|----------|-----------|
| adiskide | : ami |
| zahar | : vieux |
| gazte | : jeune |
| langile | : ouvrier |
| lantegi | : usine |

| | |
|---------|------------|
| etxe | : maison |
| etxalde | : ferme |
| borda | : bordé |
| jaun | : monsieur |
| andere | : dame |
| handi | : grand |
| ttipi | : petit |
| nagusi | : maître |

-4.8-

| | |
|---------|----------|
| non? | : où ? |
| nongo? | : d'où ? |
| sortu | : naître |
| izar | : étoile |
| klase | : classe |
| partida | : partie |

-4.9- -Mapa-

| | |
|---------------------------|-----------------|
| izen | : nom |
| izendegi | : nomenclature |
| alde | : côté |
| arte | : intervalle |
| iparralde | : côté nord |
| hegoalde | : côté sud |
| Lapurdi | : Labourd |
| Baxenabarre, Behanafarroa | : Basse Navarre |
| Zubero | : Soule |

5. Nondik nora

5.1 Eskolan - Beranta da

Irakasleak ikasleak deitzen ditu. Bi falta dira.

- Irakaslea - Beranta da, haurrak.
Maite - Ni etxetik heldu naiz.
Beñat - Eta ni saltegitik.
Irakaslea - Ez ote zarete plazan egon ?
Maite - Ez ez, eskolara jin naiz,
zuzen zuzena.
Beñat - Ni, saltegira joan naiz kaier erostra.
Irakaslea - Kaierra ala oñoñak ?
- Ongi. Laster sar zaitezte gelan.



5.2 Errepika - Etxetik saltegira

Maite etxetik jin da eta saltegira joan da.
Zu eskolatik jin zara eta plazara joan zara.
Zuek menditik jin zarete eta merkatura joan zarete.
Neskak merkatutik jin dira et etxera joan dira.

| NOR | NONDIK | NORA | |
|--------|------------|-----------|------------|
| Maite | etxetik | eskolara | ari da |
| Zu | eskolatik | plazara | ari zara |
| Zuek | menditik | merkatura | ari zarete |
| Neskak | merkatutik | etxera | ari dira |

5.3 Eleketa : Ibilaldiak

Ibilaldiak erakuts marrazki batean.

1. ikaslea - Egun on ibili zara ?
2. ikaslea - Ni eskolatik plazara joan naiz, eta gero plazatik eskolara joan naiz.
1. ikaslea - Ederki !
2. ikaslea - Zu nondik nora ibili zara ?

5.4 Lagunartean - **Etxeko bidean**

Autotik jaustean.

- Amaia - Arratsalde on Koldo,
ikastetxetik heldu zara ?
Koldo - Bai, ikastetik heldu naiz.
Eta orain jatera ari naiz.
Eta zu ?
Amaia - Ogi eroastera joan behar dut.
Koldo - Zato zerbait edatera,
eta gero afaltzera.
Amaia - Ez, haur zaintzera ari naiz
Karrikaburura.
Koldo - Goazen halere jartzera kalakan
aritzera.
Amaia - Berdin ! Gero zato nire laguntzera.



5.5 Errepika - **Zertarik, zertara**

| NOR | NONDIK | (BAI) | ZERTARIK |
|---------|--------------|-------------|------------------|
| Amaia | bulegotik | heldu da | lanetik |
| Koldo | ikastetxetik | jin da | ikastetik |
| Gu | plazatik | etorri gara | jostatzetik |
| NOR | NORA | (BAI) | ZERTARA |
| Amaia | saltegira | ari da | zapata eroastera |
| Zuek | etxera | ari zarete | afaltzera |
| Gazteak | karrikara | joan dira | laster egitera |

5.6 Eleketa : **Nora, zertara**

- | | | |
|------------|--------------------------|-----------------------|
| 1. ikaslea | - Nora ari zara ? | Ikastolan ikasten. |
| 2. ikaslea | - Saltegira. | Ostatuan jaten. |
| 1. ikaslea | - Zertara ? | Kafetegian edaten. |
| 2. ikaslea | - Kaier eroastera. | Lantegian lan egiten. |
| 1. ikaslea | - Ederki. | Etxean haur zaintzen. |
| 2. ikaslea | - Zu nondik heldu zara ? | Egongelan irakurtzen. |
| 1. ikaslea | - Ikastetxetik. | Sukaldean askaltzen. |
| 2. ikaslea | - Zertarik ? | Logelan etzaten. |

5.7 Lagunartean - **Geltokian**

Geltokian bi adiskide autobusaren beha.

- Manex - Nola zara Katixa ?
 Katixa - Uf, Baionan ibili naiz eta akitua,
 unatua naiz.
 Manex - Nora ari zara, hain ederra ?
 Katixa - Hazparnera ari naiz. Eta zu ?
 Manex - Ni, Baionatik Kanbora.
 Zu, beti Hazparnen bizi zara ?
 Katixa - Bai, eta zu Hiriburun,
 ez dea hala ?
 Manex - Ez. Orain, ez naiz Hiriburun.
 Donazaharren bizi naiz.
 Katixa - So egizu, autobusa heldu da.
 Manex - Sar zaitez barnera, aulkia batean jartzera.
 Katixa - Ikus arte, Manex !
 Manex - Bai. Ongi ibil, Katixa !



5.8 Errepika - **Non bizi da ?**

| NOR | NON | BIZI | |
|---------|--------------|------------|------------|
| Zu | non | bizi zara? | |
| Ni | Hiriburun | bizi naiz. | |
| Manex | non | bizi da? | |
| Manex | Donazaharren | bizi da. | |
| NOR | NONDIK | NORA | JOAN |
| Katixa | Baionatik | Kanbora | joaten da. |
| Trena | Uztaritzetik | Bidarraira | joaten da. |
| Ikaslea | etxetik | eskolara | joaten da. |

5.9 Eleketa - **Trenbidea**

Mapan ikus nondik nora joaten den trena edo autobusa.

1. ikaslea - Trena, Baionatik Milafrangara joaten da.
 Gero, Milafrangatik Uztaritzera ...
2. ikaslea - Trena, Donibane-Garazitik Bidarraira itzultzen da. Gero ...

Mapa - Euskal Herria



Hiztegia 5

-5.1-

| | |
|------------|-------------|
| gogoeta | : réflexion |
| heldu | : arriver |
| egon | : rester |
| jin, jiten | : venir |
| joan | : aller |
| plaza | : place |
| saltegi | : magasin |
| zuzen | : droit |
| laster | : vite |
| oñoña | : bonbon |

-5.2- -5.3-

| | |
|----------|------------|
| mendi | : montagne |
| merkatu | : marché |
| erakutsi | : montrer |
| marrazki | : dessin |
| ibilaldi | : marche |

-5.4-

| | |
|-----------|------------------|
| bide | : chemin |
| ikastetxe | : collège |
| halere | : cependant |
| berdin | : égal (ement) |
| lagun | : camarade |
| lagunarte | : groupe |
| lagundu | : aider |
| auto | : auto |
| jautsi | : descendre |
| afaldu | : diner (souper) |

| | |
|--------|--------------|
| gero | : ensuite |
| zaindu | : garder |
| jarri | : (s')assoir |

-5.5- -5.6-

| | |
|------------------|-------------------|
| jin | : venir |
| zertarik zertara | : de quoi à quoi? |
| jostatu | : jouer |
| laster | : rapidité |
| gazte | : jeune |
| Ikastola | : école basque |
| kafetegi | : cafétéria |
| ostatu, jatetxe: | restaurant |
| etzan | : se coucher |

-5.7-

| | |
|----------|---------------------|
| geltoki | : gare, arrêt |
| akitu | : fatigué |
| unatu | : épuisé |
| Baiona | : Bayonne |
| Hazparne | : Hasparren |
| Kanbo | : Cambo |
| Hiriburu | : St-Pierre-d'Irube |

-5.9-

| | |
|-------------------|------------------|
| Milafranga | : Villefranche |
| Bidarrai | : Bidarray |
| Uztaritze | : Ustaritz |
| Donibane-Lohizune | : St-Jean-de-Luz |
| herria | : pays, peuple |
| Euskal Herri | : Pays Basque |

6. Gure familia

6.1 Eskolan - Ahaideak

Eskolan familiaz mintza :

- Andereño - Zein dira familiako izenak ?
Maider, nor da Peio ?
- Maider - Peio, nire anaia da.
- Andereño - Ongi. Eta Ioana ?
- Maider - Ioana nire ahizpa da.
- Andereño - Bai, edo Peioren arreba.
- Maider - Peio eta ni, haurridgeak gara.
Ioana eta ni, ahizpak gara.
- Andereño - Hori bera da. Eta zure osebak,
zer du izena ?
- Maider - Otto Piarres, aitaren anaia da.
- Andereño - Eta zure izebak, zer du izena ?
- Maider - Ttantta Maia, amaren ahizpa da.
- Andereño - Ederki ! Eta besteak beste.



6.2 Errepika : Noren etxea da ?

| | |
|---|---|
| Aitak etxea badu ; aitaren etxea da ; etxea aitarena da. | Haurrak liburua badu ; haurraren liburua da ; liburua haurrarena da. |
| Maitek kaierra badu ; Maiteren kaierra da ; kaierra Maiterena da. | Beñatek kaierrrik ez du ; ez da Beñaten kaierra ; kaierra ez da Beñatena. |

6.3 Elekta : Familiaren marrazkia

Marrazkian edo argazkian nor.

- | | |
|--|--|
| <ol style="list-style-type: none">Nor da neska hau ?Hau Maider da.Nor da mutiko hau ?Hau Peio da, Maiderren anaiaNor da beste neskato hau ?Hau Ioana da, Maiderren ahizpa edo Peioren arreba. | <ol style="list-style-type: none">Nor da gizon hori ?Hori Maiderren aita da.Eta emazte hora ?Hura Maiderren ama da. |
|--|--|

6.4 Gizartean - Senar-emaztea ?

Ostatuan, bi gizon, andere batia so :

- Mixel - Nor da neska hori ?
Koldo - Neska hori, Argitxu da.
Mixel - Zure arreba da ?
Koldo - Ez, ez da nire arreba.
